Non dago eztia?

Gizakiek eta txori basatiek elkarrekin lan egin dezakete?
Ekialdeko Afrikan ezti-erakuslea deitzen den txoriak eztia aurkitzen laguntzen dio jendeari.

Ezti-erakusleak oso gogoko du argizaria eta larbak (erlekumeak) jatea, eta beti moldatzen da erlauntz gozo bat aurkitzeko. Baina txoria oso txikia da, eta ezin du erlauntza apurtu eta ireki barruko janari gozoa jateko. Eta horretarako dago Boran etniako jendea. Beren jaki guztiak prestatzen dituzte, eta oso gogoko dute noizean behin ezti apur bat jatea. Eztia lortzeko, erlauntz basati bat aurkitu behar dute, eta eztia beren eskuekin atera. Baina basoan erlauntzak aurkitzea zaila izan daiteke batzuetan. Zorionez, boran etniakoek ezti-erakuslea dute horretan laguntzeko.



Erleek zuhaitzen enborren barruan egiten dituzte erlauntzak.

Txori ezti-erakuslea ezagutu
Ezti-erakusleari begiratzen badiozu,...
Jarraitu irakurtzen.

Boran herria ezagutu
Boran herrikoak Ekialdeko Afrikan bizi dira. Etxeak adarrekin egiten dituzte...
Jarraitu irakurtzen.

Ezti bila

Txoriek edo boranek ezti bila joan nahi dutenean, elkarri deitzeko modu bat dute. Boranek txilibitu berezi bat dute, kilometro batetik edo urrunagotik entzuten dena. Gizakiei deitzeko ezti-erakusleak bi nota abesten ditu behin eta berriro: tirr-tirr, tirr-tirr!

Bai boranak bai ezti-erakuslea prest daudenean, eztia bilatzen hasten dira. Txoriak hegan egiten du begien bistatik desagertu arte. Gero, itzuli eta ongi ikus daitekeen leku batean jartzen da. Gizakiak leku horretara hurbiltzen direnean, aurrerago hegan egiten du, bidea bere isats-luma zuriekin erakutsiz.

Boran bat ezti-erakusleari txistu egiten.

Ezti-erakusleak erlauntza lurretik hurbil dagoela boranei adierazteko, zuhaitzen adaburuak baino baxuago hegan egiten du. Hegan altuago egiten badu, horrek erlauntza zuhaitz batean dagoela esan nahi du.

Orduan, berriro lurreratu ondoren, zain geratzen da. Boranek zarata egiten dute txoriari oraindik bere atzetik doazela adierazteko. Txistu egiten dute, egurretan jotzen dute eta ozenki hitz egiten dute.

Erlauntzera hurbildu ahala, ezti-erakuslea gero eta sarriago lurreratzen da. Lurretik gero eta hurbilago jartzen hasten da. Boranek badakite erlauntzera hurbiltzen ari direla.

Azkenik, erlauntzera heltzen denean, ezti-erakusleak soinu berri bat egiten du. Boranei “Aizue, heldu gara!” esaten die doinu leun batean, noten artean isilune luzeak eginez. Batzuetan zirkuluetan hegan egiten du erlauntzaren inguruan.

Boranek su bat pizten dute. Suak hartutako adar batekin erleak kanpora ateratzen dituzte. Orduan, erlauntza ireki eta eztia biltzen dute. Argizari eta larba piloa uzten dute ezti-erakuslearentzat.

Biak irabazle

Boranek esaten dute txoriaren laguntzarik gabe erlauntz bat aurkitzeko ia bederatzi ordu behar direla. Batzuetan ez dute erlauntz bat ere topatzen. Baina, ezti-erakusleak bidea erakusten dienean, hiru ordu bakarrik behar dituzte, eta ia beti aurkitzen dute erlauntz bat edo beste. Boranen laguntzarik gabe, ezti-erakusleak normalean erlauntzaren aurreko sarreran apur bat mokokatu baino ezin izaten du egin. Baina gizakien laguntzaz, beren suaz eta tresnez, ezti-erakuslea askoz erlauntz gehiagotara sartzen da!

Bakarrik

Ezti-erakusleak batzuetan bakarrik joaten dira erlauntzetara. Goiz hodeitsuetan eta hotzetan joaten dira, erleak erdi lo daudenean. Orduan zuzen hegan egin dezakete erlauntzera, baina ez dira bertan denbora luzean geratzen. Erleek ziztatu egin ditzakete, eta gainera txoriek ez dute janari askorik lortzen.

Ezti-erakuslearen kondaira

Boranek kondaira bat dute eztierakusleari buruz. Kondairan azaltzen da zer gertatzen zaizun txoriari erlauntza erakustearen ordainez sari moduan janaririk uzten ez badiozu.Txoriari jarraitzen diozun hurrengo aldian, ezti-erakusleak leku benetan arriskutsu batera eramango zaitu, adibidez, zuhaitz batean dagoen pantera batengana!

Iragana eta etorkizuna

Gizakiek eta ezti-erakusleak elkarrekin lan egiteko duten modua benetan oso eraginkorra da, eta zientzialariek uste dute oso denbora luzean zehar erabili dutela. Haitzetako marrazkiek erakusten digute afrikarrak 20.000 urtetan baino gehiagotan zehar aritu direla eztia biltzen.

Baina txoriaren eta gizakien arteko elkarlan hori arriskuan dago. Gaur egun ezti-erakusle asko natura erreserbetan bizi dira, eta gizakiak ezin dira bertara sartu. Eta gainera boranak hirietara joaten hasi dira, bertan askoz errazagoa baita supermerkatuan azukre pakete bat erostea erlauntzetatik eztia biltzea baino. Ezti-erakusleak lorategietan gizakiei deitzen ikusi omen dituzte, baina erantzunik jaso gabe.

1.
Zein janari lortzen dute boranek eta ezti-erakusleak erlauntzetatik?

Boranek.

1

Ezti-erakusleak.

1

2.
Zer egiten dute boranek eta ezti-erakusleak elkarri laguntzeko?

Boranek.

1

Ezti-erakusleak.

1

3.
Zergatik lekuz aldatu behar dute boranek urtean hiru edo lau aldiz?

(A) Ura aurkitzeko.

(B) Eztia aurkitzeko.

(C) Abereei jaten emateko.

(D) Haragia eta esnea saltzeko.

4.
Zerez egindakoak dira boranen etxeak? Bi gauza aipatu.

1

1.

2.

5.
Hurrengo gaien artean zein ikas daiteke Boran herria ezagutu karratutik?

(A) Zergatik boranak ezin diren sartu natura erreserbetara.

(B) Zergatik aritu diren boranak eztia biltzen hainbeste urtetan zehar.

(C) Zergatik hasi diren boranak hirietara joaten.

(D) Zergatik ikertu dituzten zientzialariek boranak.

6.
Zer egiten dute boranek ezti-erakusleari deitzeko?

(A) Ke seinaleak egiten dituzte.

(B) Egurretan jotzen dute.

(C) Txilibitu berezi bat erabiltzen dute.

(D) Txoriaren izena esaten dute.

7.
Ezti-erakusleak mezu ezberdinak bidaltzen dizkie boranei gauza ezberdinak eginez. Hutsuneak bete taula osatzeko.

Zer egiten du ezti-erakusleak?	Zer adierazten die boranei?
Zuhaitzen adaburuen gainetik hegan egiten du.	
	Erlauntzera hurbiltzen ari direla.
	Erlauntzera heldu direla.

8.
Zertarako pizten dute su bat boranek?

(A) Txoria erlauntzera bideratzeko.

(B) Erleak erlauntzetik irtenarazteko.

(C) Erlauntza irekitzeko.

(D) Erlauntza aurkitu dutela erakusteko.

9.
Zein da Ezti-erakuslearen kondairaren mezu nagusia?

(A) Ezti-erakusleari bere saria eman behar diozu.

(B) Ezti-erakuslea oso txori trebea da.

(C) Ezti-erakusleari beti jarraitu behar diozu.

(D) Ezti-erakuslea arriskutsua izan daiteke.

10.
Ezti-erakuslea bakarrik dagoenean, zergatik joaten da goizetan erlauntzetara?

(A) Erlauntzak aurkitzea errazagoa delako.

(B) Bertan larba gehiago egoten direlako.

(C) Erleak ez direlako erlauntzean egoten.

(D) Ziztada bat jasotzeko arriskua txikiagoa delako.

11.
Zer aurkitu dute jakin ahal izateko, boranak eta ezti-erakuslea agian milaka urtetan zehar elkarlanean aritu direla?

11

12.
Zergatik dago arriskuan txoriaren eta gizakien arteko elkarlana?

(A) Boranek orain ez dutelako ezti-erakuslea behar.

(B) Ezti-erakusleak utzi egin dio boranei jarraitzeari.

(C) Boranek orain ez dutelako eztia gogoko.

(D) Ezti-erakusleak beste janari mota batzuk aurkitu dituelako.

13.
Azal ezazu zer egin beharko duen ezti-erakusleak hemendik aurrera, boran gehiago hirietara joaten badira. Irakurritakoa erabil ezazu azalpena egiteko.

1

Original ID	WheresTheHoney
Title	Where's The Honey
Answer code	
Images	